

# **AKTIBOAK BABESTEKO POLITIKEN ETA PROZEDUREN ESKULIBURUA**



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

**2007ko azaroa**

## **1.- HELBURUA**

Bezeroen aktiboen babesa bermatuko duten prozedurak finkatzea da Prozeduren Eskuliburuaren helburua; Finantza-tresnak eta bezeroen fondoak babesteko printzipioak taxutuz, Caja Laboral Popular – Lan Kide Aurrezkiaren — aurrerantzean Euskadiko Kutxa— MiFID printzipioak betetzeko asmoarekin.

## **2.- ESKULIBURUAREN ARDURADUNAK**

Araudia Betearazteko Departamentuak landu du eskuliburu hau, eta beste hauek izan ditu laguntzaile: Baloreen zentroa, Fondoeren erakunde kudeatzailearena, Altxortegiko Back Officearena eta Negozio Garapenaren Area.

Araudia Betearazteko Departamentuaren ardura izango da eskuliburuaren edukia eta une bakoitzean indarrean diren prozedurak eguneratzea.

Euskadiko Kutxako langile guztiengan izango du eragina eskuliburuaren edukiak, helburuei eta zehaztutako norainokoei dagokienez.

Eskuliburuak dioena betetzeko orduan zalantzarik badago, Araudia Betearazteko Departamentua arduratuko da horiek argitzeaz.

### **3.- NORAINOKOA**

Eskuliburuak honako informazio hau jasotzen du:

- . aktiboak babesteko irizpide orokorrak
- . MiFID produktu mota bakoitza babesteko neurri zehatzak

#### **4.- AKTIBOAK BABESTEKO IRIZPIDE OROKORRAK**

Aktiboak babesterakoan, Euskadiko Kutxak honako irizpide hauek hartzen ditu kontuan:

- a) Bezeroen aktiboak indibidualizatuta daudenez, bezero bakoitzaren aktiboak berehala bereizten dira gainontzekoetatik eta Euskadiko Kutxakoetatik.
- b) Kanpoko erakunde gordailuzain guztiekin kontratua sinatzen da, MiFID Zuzentaraua eta bestelako legezko araudiak betetzeko.
- c) Beste horrenbeste gertatzen da beste finantza-erakundeetako produktuak eta zerbitzuak merkaturatzen direnean.
- d) MiFID produktuak kontratatu aurretik, Euskadiko Kutxak aginduak jaso eta transmititu nahiz betetzeko kontratuaren berri emango dio bezeroari, hark sinatu dezan. Kontratuak bezeroen eta Euskadiko Kutxaren betebeharrak azaltzen ditu.
- e) Euskadiko Kutxak ez ditu balore-aginduak metatzen, eta, beraz, eragiketa guztiak banaka burutzen dira.
- f) Euskadiko Kutxak exekuzio onenari eta aktiboak babesteari buruzko eskuliburuak exijitzen dizkie merkaturatzeko edo gordailutzeko erabiltzen dituen kanpoko entitate guztiei, eta uneoro bezeroen interesak zaintzen ditu.
- g) Euskadiko Kutxak barne-kontrolak egiten ditu aldizka, bere erregistroak eta aktiboak dituen hirugarren gordailuzainarenak bat datozela egiaztatzeko.
- h) Euskadiko Kutxak aktiboen posizioari buruzko informazioa ematen die aldizka bezeroei, indarrean diren lege-betekizunen arabera.

## 5.- AKTIBOAK BABESTEKO PROZEDURA

### 5.1 Nazioarteko balore-eragiketak

Nazioarteko balore-eragiketak Merrill Lynch Agencia de Valores, SA entitatearen bitartekaritza burutzen dira. Euskadiko Kutzak omnibus-kontua du erakunde horrekin.

Eragiketak banaka bideratzen dira. Euskadiko Kutzak bereizita ditu bezero bakoitzaren aktiboak.

Hilero, ISIN kodeei kontaketa bana egiten zaie, kode bakoitzaren batukaria eta titulu horien Kutzako bezero bakoitzaren baloreen batuketa bat datozela egiaztatzeko.

Aldizka, posizioen eta egindako aldaketen berri ematen zaie bezeroei.

Euskadiko Kutzak Merrill Lynch Española Agencia de Valores, SA erakundearekin sinatuta duen kontratuak arautzen ditu prozedurak, eskubideak eta betebeharrak. Era berean, erakunde horren exekuzio onenaren eta aktiboak babesteko politikaren jakitun da Euskadiko Kutxa.

### 5.2 Balore-eragiketak Espainiako merkatuan

Bezeroek eskatutako eragiketak honela bideratzen dira:

- a) Bilboko Burtsaren bidez, Euskadiko Kutxa erakunde horretako kide baita
- b) Norbolsaren bidez

Eragiketa horietarako, Euskadiko Kutzak bi kontu ditu Iberclear-en: kontu propioa eta omnibus-kontua. Lehenengoa Entitatearen beraren eragiketarako erabiltzen da; bigarrena, berriz, bezeroen eragiketarako.

Hilero, bezeroen posizioak eta erakunde hark emandakoak ea bat datozen begiratzen da.

Bezeroen posizioak erabat indibidualizatuta daudenez, bakoitzarenak argi eta garbi bereizten dira gainontzekoetatik eta Euskadiko Kutzakoetatik.

Aurreko kasuan bezala, aldizka euren posizioen berri igortzen zaie bezeroei.

Kasu bietan balore-kontuaren kontratuak arautzen du gai horien funtzionamendua.

Euskadiko Kutzak Norbolsarekin sinatuta duen kontratuak zehazten ditu erabili beharreko mekanismoak eta bi aldeen eskubide eta betebeharrak.

Euskadiko Kutzak ez du, inondik inora, agindu-metaketa prozedura erabiltzen.

### 5.3 Epe finkorako ezarpenak

Dagokion kontratuak arautzen du produktuon erosketa. Gainera, gordailututako baloreak produktuaren titularren arabera indibidualizatzen direnez, bezero bakoitzaren posizioak bereizita daude gainontzekoenetatik.

Kontratua egitean jakinarazten zaio bezeroari zenbat diru gordailutu duen.

### 5.4 Repoak edo berrerosteko eragiketak

Kontratua egiterakoan finkatzen da erosiko den kopurua, eta dagokion kontratuan egongo da zehaztuta.

Bezeroen posizioak eta Espainiako Bankuak emandako informazioa koadratu egiten dira.

### 5.5 Mugaegunerako zorra

Bezeroarekin kontratua sinatu ostean, bezeroen posizioak batzen dira eta batura Espainiako Bankuak emandako informazioarekin bat datorrela egiaztatzen da.

### 5.6 Inbertsio-fondoak

Euskadiko Kutzak Caja Laboral Gestión SGIIC, SA eta Banco Inversis Net, SA erakunde kudeatzaileen fondoak merkaturatzen ditu. Bietan, harpidetzak, errenboltsoak eta intsuldaketak ekarpen indibidualetan gauzatzen dira, eta, horrela, bezero bakoitzaren posizioak gainontzekoenetatik bereizita agertzen dira Euskadiko Kutzaren eta Inversisen erregistroetan.

Aldizka bezeroen posizioak egiaztatzen ditu Euskadiko Kutzak, eta bere informazioa Inversisek emandakoarekin alderatzen du.

Indarrean den araudia betez, fondo bakoitzeko posizioen berri ematen die Euskadiko Kutzak bezeroei noizean behin.

Euskadiko Kutzak kontratu bana ditu sinatuta bere fondo-kudeatzailearekin eta Inversisekin, funtzionamendu-mekanismoak eta alde bien eskubide eta betebeharrak zehazteko.

### 5.7 Truke-asegurua

Mota horretako eragiketa guztiak kontratu bidez burutzen dira. Kontratuak bezeroaren eta Euskadiko Kutzaren betebeharrak zehazten ditu.

Bestalde, eragiketa bakoitza eta dagokion kontrako aldea erabat indibidualizatuta daudenez, bezero bakoitzaren eragiketak argi eta garbi bereizten dira gainontzekoenetatik.